



DOKUMENTAZIO  
ZENTROA  
TXT 20087



**KONGRESUAREN HASIERAKO EGOERA**

**ORGANIZAZIO TXOSTENARI  
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**1. ZUZENKETA.- KAPITULU BERRIA  
(Damen. Bilbo)**

**ZUZENKETA TRANSAKZIONALA.** Zuzenketaren egileek, Abagaduneko Analisiaren ponentziak eta Organizazioko ponentziak, elkaturik, ondoko zuzenketa aurkeztu dute, eta honek ondorioz dakar: Abagaduneko Analisia Txosteneko 6. kapitulu osoa kentzea, eta kapitulu berria sartzea Organizazioa Txostenean, izenburutzat izanik "L.A.B.-EN KARAKTERIZAZIOA" (4. kapitulua), eta bere edukina hurrengo hau delarik:

**4.- LAB-EN KARAKTERIZAZIOA**

«L.A.B. klaseko sindikato abertzale gisa egituratzen da, koadro eta masetako erakunde eta langileen tresna modura aldaketa sozio-politikoetan aurrera egin ahal izateko. Aldaketa horiek balio demokratikoeak eta justizia soziala erabat garaturik egonen diren Euskadi independente eta sozialista erdiestea izanen dute helburua».

Definizio orokor honen esparruan, gure abiapuntua gure organizazio hau lehen eta gaur karakterizatzen duten elementu giltzak berriro formulatzeko eta gaurkotzeko ikusten dugun premia da. Jakin badakigu gai hau ez dela Kongresu honetan zentrala; baina ekin beharra ikusi diogunez, hasi nahi izan dugu Kongresu honetan berean puntu honetara hurbiltze-pausoak ematen. Ez dugu inondik ere kapitulu honen edukina agortu nahi, ez azken edukintzat kontsideratu ere. Guk uste, gure organizazio honen karakterizazioa aztertu behar dugu, aldeazurreko debate moduan, estatutuak direla eta hasiko dugun eztabaida prozesuan.

L.A.B.-en karakterizazio gaurkotuaren puntu nagusi bezala, ondoko karakteristika edo ezaugarriak ditugu gutxienez:



1.- SOZIO-POLITIKOA: gure ihardunaren lehenbiziko eta funtsezko lekua lantegia dugu, eta esplotazio eta interbentzio eremu zaigun horretatik gure egiten ditugu Euskadin diren errebindikazio ekonomiko, politiko eta sozialak. Zapalkuntza ororen eragin bateratua da transformazio soziala baldintzatzen eta oztopatzen duena. Eta honegatik, L.A.B.ek ez dio uko egiten euskal langile klasean eragina duten eremu eta arazo guztietan beharrez interbenitzeari.

2.- ABERTZALEA: Euskadi da andre-gizon langileek klase burrukan eta transformazio sozialean parte hartzeko duten eremu espezifikoa. Zehatz azalduta, bada burruka dinamika espezifikoa eta desberdindua, zeinetan auzi nazionalak errebindikazio eta proposamen transformatzaile guztien elementu zentral eta katalizatzaile gisa jokatzeko duen. L.A.B.ek, hortaz, aipatutako eremu hori sendotzearen alde bideratuko du bere interbentzioa, eta Euskadiren Subiranotasun Nazionala onartzea eta garatzea eragozten duten traba guztiak haustera. Honetarako, bere eginahaletan koordinaturik jokatu du interesaturik dauden gainerako herri-kapa guzietan, gaurko euskal gizartea Euskal Herri Langileak bere etorkizuna kontrolatu ahal izanen duen euskal gizarte bihurtzeko.

3.- TRANSFORMATZALEA.- L.A.B. klase-sindikatuak da, eta euskal langile klasearen interes berehalako eta estrategikoak defendatzearen eta aurreratzearen alde jokatzeko du, gure gizarteak -aldioro- jasaten dituen faktore zapaltzaile guztiak eta bakoitza garaitzeko bidegintza etengabea.

4.- K.A.S.-EKO PARTAIDEA: L.A.B.ek, geure interbentzio eremuan bertako gerozko dinamizazio/zuzendaritza artikulatu ahal izateko, beharrezko du interbentzio guztietan dinamizazio/zuzendaritza globala desarroilatzen gaitasuna. L.A.B.ek, bidenabar, Blokeko dinamizazio/zuzendaritza global horretara bere interbentzio eremuan lorturiko esperientzia eta praktika aipatutako ditu. L.A.B./BLOKEA-aren arteko elkarrekiko dialektika honetan, bakoitzaren dinamikaren eguneroko birmoldatzea eta berrikustea, nolana ere errealitate estatikoak gainditu nahirik (organizatiboak, ideologikoak, estrategikoak...), lehen eta orain oinarritzeko ardatz izan da nola Blokeak hala gure organizazioak Euskadiren askapen nazional eta sozialeko prozesuko eskariei erantzun ahal izateko.

5.- ORGANIZAZIO DEMOKRATIKOA: (idatzi hemen zuzenketan duen edukina bera).

6.- ORGANIZAZIO TRESNA ELKARTZALEA: (idatzi hemen zuzenketan duen edukina bera)

7.- SINDIKATU INTERNAZIONALISTA: (idatzi hemen zuzenketan duen edukina bera)

**2. ZUZENKETA.- 150 PASARTEA  
(Patxi Erdozain. Iruña)**

PONENTZIAK ONARTU du pasarte berri bezala, eta oraingo 149 eta 160 pasarteen artean sartu behar da.

**3. ZUZENKETA.- 162 PASARTEA  
(Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU.

**4. ZUZENKETA.- 171 PASARTEA  
(Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU.

**5. ZUZENKETA.- 177 PASARTEA  
(Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU.

**6. ZUZENKETA.- 193 PASARTEA  
(Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU.

**7. ZUZENKETA.- 220 PASARTEA  
(Tatel. Deba Garaia)**

ZUZENKETAREN AURKEZLEAK ERRETIRATUA.

**8. ZUZENKETA.- 220 ETA 334 PASARTEAK  
(Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU.

**9. ZUZENKETA.- 221 PASARTEA  
(Tatel. Deba Garaia)**

ZUZENKETA TRANSAKZIONALA. Zuzenketaren aurkezlea eta ponentzia ados jarri dira zuzenketaren edukina onartzeko, baina 225

pasartearen zuzenketa gisa aurkezturik, eta «Errebindikazio Ekintzako Batzorde Nazionala» izenburuaren ondo-ondoren azalduko da, zeren, 221 pasartean - zuzenketa hasieran ukitu nahi duena- Errebindikazio Ekintzaren eremu nazionalaz hitz egiten da, eta ez Errebindikazio Ekintzako Batzorde Nazionalaz bereziki.

## **10. ZUZENKETA.- 223 PASARTEA (Tatel. Deba Garaia)**

**ZUZENKETA TRANSAKZIONALA.** Zuzenketaren aurkezlea eta ponentzia ados jarri dira 223 pasartean agertzen den «Administrazio Publikoko Ardura Nazionala» terminoaren ordeZ ZERBITZU PUBLIKOETAKO ARDURA NAZIONALA sartzeko, lehenbiziko ponentziak agertzen den terminoak nahasmendurik sortzen ahal duelako. Ondorioz, ordezte hau egin behar da aipatu terminoa ponentzian agertzen den leku guztietan.

«Zerbitzu Publikoak» terminoak, beraz, aditzera ematen ditu administrazio estatal, autonomiko, foral eta lokalen mendeko sekzio sindikal, batasun sindikal, azpisektore eta sektore guziak (osasun publikoa, irakaskuntza publikoa, administrazioak...).

## **11. ZUZENKETA.- 225 PASARTEA (Tatel. Deba Garaia)**

**ZUZENKETAREN AURKEZLEAK ERRETIRATUA**

## **12. ZUZENKETA.- 226 PASARTEA (Tatel. Deba Garaia)**

**ZUZENKETAREN AURKEZLEAK ERRETIRATUA.**

## **13., 14. ETA 15. ZUZENKETAK.- 240 PASARTEA (Tatel. Deba Garaia / Rafa. Hernani-Lasarte)**

**ZUZENKETA TRANSAKZIONALA.** Zuzenketa aurkezleak eta ponentzia ados jarri dira honetan (13.a), 14.ean eta 15.ean planteatzen dena bakar batean biltzeko. Eta zuzenketa berrian adierazten da guztiz kendu behar dela finantzei buruzko pasarte osoa (240tik 247rako pasarteak, biak barne), eta puntu berriak sartu behar direla 227tik 239ra bitarteko pasarteetan, Organizazioari buruzkoetan, honela idatziko liratekeelarik:

4.4.1.1.- ORGANIZAZIOA (O)

ORAINGO 227 PASARTEA: aldatu gabe.

PASARTE BERRIAK (227 eta 228 bitartean):

Orain arteko tesoreria aparatua hemendik aurrera Organizazio sailera pasako da ->«staff», ekipo edo lan batzorde

gisa, Organizazioaren menpean-, kontu ekonomikoak (sarrerak/gastuak), gure ustez, premia organizatiboan ondorio zuzena direlako.

Beraz, Organizazio sailak, gure organizazioaren geroko desarroilorako helburu inportantetzat hartuko du gestio administratibo/kontablearen zentralizazioa sendotzea, baliakizunak ikuspegi nazionaletik bideratzea (arrazionalizazioa, lehentasunak...), eta gestio hori baliabide berriak lortzeko bide izanen diren leku berrietara projektatzea. Ildo honetan, Organizazio sailaren ardura berezia izanen da kontabilitatearen eta gestioaren zentralizazioa egitea, erantzukizun edo ardura bakoitzak, organo eta egitura bakoitzak bere premiak betetzeko, erabakitzen diren gastu lehentasunen marko barnean

ORAINGO 228 ETA 229 PASARTEAK: aldatu gabe.

PASARTE BERRIA (229 eta 230 pasartean artean):

\*Finantzatako Eskualdeko Ardura: eskualde bakoitzean -eta Eskualdeko Organizazio saileko «staff» gisa-, ardura honek bere gain hartuko ditu Gestio (oraino zentralizatu gabeko gastuen jarraipena, kuoten fakturazioaren jarraipena,...) eta Proiektu (finantzaketa ekonomikorako proiektuei begira) ardura nazionaletatik zehazturiko eginkizunak eta lanak. Ardura hau bere gain hartuko duena Eskualdeko Idazkaritzakoa izanen da.

ORAINGO 230-233 PASARTEAK: aldatu gabe.

PASARTE BERRIA (233 eta 234 pasartean artean):

\*Finantzatako Ardura Probintziala: Hau ere Organizazio Probintzialeko «staff» gisa eratuko da eta bere gain hartuko ditu eskualde eremurako adierazi direnak. Gainera, bere gain izanen ditu zentralizazioaren desarroiloko etapa transitorioan aurkitzen diren gestio kontuak (sarrera/gastuak, kuoten fakturazioa,...). Azpimarratu nahi da ponentziako 4.2.1. pasartean planteaturiko filosofia, jakin badakigula halaber ardura honen eginkizunetan eta lanetan ematen den probisionaltasuna, zeren ardura hau desagretu ere egin bait daiteke zentralizazio prozesuan, finantzaketa inizatibak martxan jartzen direnean edota tesoreria Organizazio saileko bezala desarroilatzen denean. Ardura honen kargu egiten den pertsona Idazkaritza Probintzialekoa izanen da.

ORAINGO 234-238 BITARTEKO PASARTEAK: aldatu gabe.

PASARTE BERRIA (238 eta 239 pasartean artean):

\*Gestioaren Ardura Nazionala: honen lanak dira kontabilitatea (sarrera/gastuak, kuoten fakturazioa, pertsonala,...), ondarea,... eta Organizazio sailak erabakiko dituenak. Ardura honen kargu egiten den pertsona bera bizi den lekuko Idazkaritza Probintzialekoa izanen da. Organizazio sailak zehaztuko du ardura honetako eginkizunak bitan banatuko diren ala ez, handia delako eskatzen duen lana.

\*Projektuen Ardura Nazionala: honen lana da behar diren analisiak eta proposamen zehatzak egitea baliabide ekonomiko berriak bilatu ahal izateko. Ardura honen kargu egiten den pertsona bizi den lekuko Idazkaritza Probintzialekoa izanen

da.

239 PASARTEA: aldatu gabe.

**16. ZUZENKETA.- 267 ETA 269 PASARTEAK  
(Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU.

**17. ZUZENKETA.- 275, 279 ETA 284 PASARTEAK  
(Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU.

**18. ZUZENKETA.- 289 PASARTEA  
(Tatel. Deba Garaia)**

**ZUZENKETA TRANSAKZIONALA.** Zuzenketaren aurkezlea eta ponentzia ados jarri dira 4.4.2.1. eta 4.4.2.1.1. tituluen artean zuzenketa sartzeko, edukina honakoa delarik:

Lan esparru honen betekizun dira gure hizkuntz politikaren desarroiloa, zeina projektatu behar dugun bai gure interbentzio eremuan bai sindikatu barnean. Euskal Herria berreuskalduntzeko prozesuari eginen diogun aportazioa. Langile Mugimendua berreuskalduntzeko prozesuari eginen diogun aportazioa. Lan harremanen berreuskalduntzeko prozesuari eginen diogun aportazioa. Eta, orobat, geure berreuskalduntzea eta euskararen erabilera.

Organizazio saila izanen da organizazio maila bakoitzean eta kasuan kasu euskalduntze alorreko ardura bakoitzak dituen lanen neurria zehaztu eta proposatuko duena, baita ardura bakoitzak egin behar duen lana eta eman behar duen denbora, beste ardurekiko konpatibilitatea, etab...

**19. ZUZENKETA.- 308 PASARTEA  
(Arantxa.Irun/Lola.Bilbo/Emakume taldea)**

PONENTZIAK ONARTU DU.

**20. ZUZENKETA.- 315 PASARTEA.  
(Damen. Bilbo)**

**ZUZENKETA TRANSAKZIONALA.** Zuzenketa aurkezleak eta ponentzia ados jarri dira zuzenketan agertzeraz ematen den ideia jasotzeko eta pasarte berri gisa 133 eta 135 bitartean sartzeko, edukia honakoa delarik:

.Nahitaezkoa dugu ardura bakoitzaren eginkizunak, lanak,

zenbateko lana,... eta, oro har, dinamika gero eta gehiago definitzea eta zehaztea. L.A.B.eko ardura organikoek ez dute nahitaez pertsonaren liberazio osoa eskatu behar, ardurak (gutxi definiturik daudelako edo lan gehiegi suposatzen dutelako) ez dira pertsona bakarrean zentratu behar... Horretara jo behar dugu.

Ardura bakoitzaren kargu eginen den pertsona hautatzean edo izedatzean, gogoan izan behar dugu zenbait oinarriko erizpideren arteko oreka: euskara; emakumearen aldeko diskriminazio positiboa; bete beharreko ardura eta norberaren gaitasuna; lehengo lanpostuarekiko, lantegiarekiko... harremanak zaintzea, etab.

## **21., 22. ETA 24. ZUZENKETAK.- 320 ETA 321 PASARTEAK (Luis. Ezkerraldea / Tatel. Deba Garaia)**

**ZUZENKETA TRANSAKZIONALA.** Zuzenketa aurkezleak eta ponentzia ados jarri dira 4.5. kapituluko eskema (eskualde, probintzia eta nazio eremuak) birmoldatzea eskatzen duen zuzenketa egiteko, eta batez ere eskualde eremua ukitzen duen pasarte, pasarte berria agertuko delarik eremu lokalari dagokiona. Zuzenketa transakzional honek 21., 22. eta 24. zuzenketak moldatuko lituzke, edukina hurrengo hau izanik:

### 4.5.- BARNE ORDEZKARITZAKO EGITURAK

ORAINGO 314 ETA 315 PASARTEAK: aldatu gabe.

PASARTE BERRIAK (315 eta 316 pasarteen artean):

#### 4.5.1.- EREMU LOKALAK

Eremu lokaletan zabaldu eta organizazioa desarroilatu behar dugulako (honetaz ari da ponentzia ere 4.3.3. pasartean Errebindikazio Ekintza aztertzen duenean), eta gogoan izanik eskualde eremuez aritzean aditzera ematen diren filosofia eta erizpideak (hauek dira gaur egun oinarriko egitura zabalduenak eta sendoenak), ahalegindu behar dugu udalerrietan dinamika sindikala sortzen, eta inon baino lehen bertako karakteristikek hala eskatzen dutenean (lantegiak, jendetza,...).

Badira arrazoi batzuk gure interbentzioa eremu lokaletara lehenbailehen zabal dezagula aholkatzen digutenak:

(HEMEN, JARRAIAN, LUISEN 21. ZUZENKETAKO 5 PUNTUAK IDATZI).

Agerikoa denez, desarroilo hau finkatu arte batez ere, Eskualdeko Idazkaritza da zabalkunde organizatiboaren prozesua gidatuko duena, kontua haundiarekin jokatuz bikoizten ahal diren egituren koordinazioan eta dinamikan (afiliazio batzarrak, delegatuen batzarrak,...)

#### 4.5.1.1.- Afiliazio Lokaleko Batzarra:

(SARTU HEMEN PONENTZIAKO ORAINGO 320 PASARTEA)

#### 4.5.1.2.- Herriko Idazkaritza:

(SARTU HEMEN PONENTZIAKO ORAINGO 322 PASARTEA)

Partaide dira Afiliazio Batzarrean hautatu nahiz berretsitako ondoko ardurak: EE/IE/Org. eta herriko errebindikazio ekintzako ekipoa.

Afiliatuak dira, oro har, herriko lantegietako andre-gizon delegatuak, herrian diren interbentzio sindikaleko premiak atenditzen dituztenak, beti ere behar den oreka mantenduz nork bere lantegian dituen interbentzio premiekin eta sindikalgintzako egiturarekin.

#### 4.5.2.- ESKUALDE EREMUAK

(IDATZI HEMEN PONENTZIAREN ORAINGO 316-319 BITARTEKO PASARTEAK)

##### 4.5.2.2.- Eskualdeko Idazkaritza:

(IDATZI HEMEN PONENTZIAREN ORAINGO 322 PASARTEA)

Ein partaide dira hurrengo ardura hauek, Afiliazio Batzarrean hautatu eta berretsiak izan behar dutenak:

.Errebindikazio Ekintza:

\*Eskualdeko ardura (bere gain ditu AI eta ORG.)

\*Eeko eskualdeko ekipoa.

\*CLAR-en arduradunak (halakorik balitz)

.Lan Instituzionala (bere gain EE eta Org.)

.Aparatuak:

\*Eskualdeko Organizazio Ardura (bere gain EE eta AI)

\*Eskualdeko Finantzen Ardura

\*Eskualdeko Komunikazioen Ardura

Elren lana da eskualdeko lantegietan diren Sekzio Sindikalen artean komunikazio eta konexio har-emana eragitea. Horretarako, bide batzuk erabiltzen ahal ditu, hots: Afiliatuek Afiliazio Batzarretan duten partizipazioa; delegatuek Delegatuen Batzarrean duten partizipazioa; lantegian bertako interbentzio sindikala talde lanean burutzea; eskualdeko egitekoak bere gain hartzea.

#### 4.5.3.- EREMU PROBINTZIALAK

##### 4.5.3.1.- Konferentzia Probintziala (KP)

PONENTZIAK MANTENTZEN DU 328 PASARTEA

**23. ZUZENKETA.- 323, 332 eta 338 PASARTEAK  
(Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU

**24. ZUZENKETA.- 324 PASARTEA  
(Tatel. Deba Garaia)**

IKUS 21 ETA 22 ZUZENKETAK

**25. ZUZENKETA.- 327 ETA 332 PASARTEAK  
(Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU.

**26. ZUZENKETA.- 329 PASARTEA  
(Tatel. Deba Garaia)**

**ZUZENKETA EGLEAK MANTENDU EGITEN DU**, eta hasieran aurkezturiko zuzenketari gehitzen dio zuzenketaren azken pasartean azaldutakoari dagokion argibidea, eta honegatik 26. zuzenketa honela geldituko litzateke:

Konferentzia Probintzian eskualde bakoitzean den afiliazioaren araberrako proportzioa eta presentzia mantentzearren, eta honela ordezkotasun horri dagokion ordezkarrizta garantizatzeko, KPren osakera hauxe litzateke:

Egituraz egitura:

\*Idazkarizta Probintziala osatzen duten pertsona guztiak.

\*Eeko Batzorde Probintziala osatzen duten pertsona guztiak.

\*Eskualdeko Idazkarizta osatzen duten pertsona guztiak.

\*Idazkarizta Nazionalerako partaide izan eta probintzia horretakoak diren pertsona guztiak (boza bai baina boturik gabe)

Afiliatuen aldetik: «x» afiliatuko delegatu bana (estatutuen debatan zehaztu beharrekoa).

MOTIBUAK:

Planteatu den zuzenketa honek, hasierakoari gehituriko argibidearekin, biltzen du Ponentziako planteamendua eta, bidenabar, baita zuzenketa bereko helburuetarik bat, hots, Eskualde Idazkariztako osakideek KPean eskuahartzea boza eta botua dutela.

Ez da bidezkoa gure egituretan hainbat militante lanean izatea, baina erabakiak hartu behar direnean, horiek beren

planteamenduak eta jarrerak KPean ezin defendatzea hitzez eta botuz.

Eta «x» afiliatuko hainbat direla, delegatuen presentzia planteatu baldin bada, eskualde bakoitzeko benetako afiliazioari dagokion ordezkaritza izateagatik da, honek ez duelarik inoiz eskualdeko egituretan lanean diharduten militanteak ordeztu behar direnik esan nahi. Guztiarengatik, bada, agertzera eman den osakera honen planteamendu hau.

## PONENTZIAK EZETSIA

### **27. ZUZENKETA.- 331 PASARTEA (Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU.

### **28. ZUZENKETA.- 334 PASARTEA (Tatel. Deba Garaia)**

ZUZENKETA EGILEAK ERRETIRATUA

### **29. ZUZENKETA.- 335 PASARTEA (Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU

### **30. ZUZENKETA.- 335 PASARTEA (Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU

### **31. ZUZENKETA.- 335 PASARTEA (Tatel. Deba Garaia)**

PONENTZIAK EZETSIA

### **32. ZUZENKETA.- 335 PASARTEA (Damen. Bilbo)**

ZUZENKETA TRANSAKZIONALA. Zuzenketa egileak eta ponentzia ados jarri dira zuzenketaren lehen pasartea bakarrik sartzeko. Bigarrenari

doakionez, berriz, zuzenketa egileak eta ponentziakoak ados jarri dira erretiratzeko, gaia berez estatutuei dagokielako, eta horiek Kongresuaren ondoren burutuko den BN batean aztertuko direlako.

**35. ZUZENKETA.- 338 PASARTEA  
(Tatel. Deba Garaia)**

ZUZENKETA EGILEAK ERRETIRATUA

**36. ZUZENKETA.- 341 PASARTEA  
(Ponentziakoa)**

PONENTZIAK MANTENDU EGITEN DU

**37. ZUZENKETA.- 342 PASARTEA  
(Damen. Bilbo)**

ZUZENKETA EGILEEK ERRETIRATUA, 32. zuzenketan adieraziari jarraikiz.